

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 2012an 25 milioi euro aurreztea ekarriko duen langileei buruzko neurri-sorta aurkeztu du

*Gaur goizean, % 50 aurreztea dakartzan barne-izaerako gastuari eusteko neurriak onartu ditu; eta sindikatuekin negoziatzeko aldi bat ireki du gainerako neurrien aplikazioa aztertzeko*

Miércoles, 15 de febrero de 2012

Nafarroako Gobernuak gaur goizeko bilkuran aurten langileen arloan hartu behar dituen doikuntza-neurriak aztertu ditu gastuaren kapitulu hori 25 milioi eurotan murrizteko. Aipatu beharra dago, iragan ekitaldian langileen gastua 1.156 milioi eurotan itxi zela (Foru Administrazioak 25.000 langile inguru du)

Proposatutako neurriak hamalau dira: haietako lau antolaketa-izaerakoak dira (13 milioi aurrezten dira) eta gaur bertan onartu ditu Gobernuak barne-instrukzio izaerarekin; eta aurrezteko hamar proposamenen sorta bat (beste 12 milioi gehitzen dira), enplegatu publikoek legezko arautzat dituzten eskubideak aipatzeagatik, beharrezkoa dena Negoziazioaren Mahai Orokorrera eramatea, haren aldaketa erabaki aurretik.

Gainera, Nafarroako Gobernuak sindikatuekin elkarrizketatzeko borondatea du proposatutako neurrien legezko translazioa zehazteko orduan, eta hamabost egunetan mugatzen du negoziatzeko prozesu hori ixteko aldia, neurriak hurrengo hilabetean, martxoan indarrean sartzen has daitezten.

Foru Gobernuak gaur onartu dituen antolaketa-izaerako lau neurriak honako hauek dira:

- **aldi baterako ordezkapenak** % 15ean murriztea 2011 urtearekin alderatuz (5,5 milioi aurreztuko dela kalkulaten da); iaz Nafarroako Gobernuak 1.600 langile ordezkatu zuen batez beste, Osasun eta Hezkuntza alorretan, bereziki. Aurten 240 ordezkapen gutxiago baimenduko da.

- Osasunbideko langileen **produktibitate-osagarria** murriztea (4 milioi euro aurreztuko dela kalkulaten da): funtsean, arratsaldeko aparteko programak mugatuko dira. Nafarroako Gobernuak itxoste-



Nafarroako Jauregiaren fatxada, Foru Gobernuaren egoitza.

zerrenden aurkako txoke-plan bat lantzen ari da aldi berean laster aurkeztuko duen egiturazko neurrietan eta antolaketako neurrietan oinarrituta.

- **Erretiroek sortutako hutsuneen** % 25a gutxienez ez estaltzea (3 milioi euro aurreztuko dela kalkulatu da): 2012rako aurreikusitako urteko 500 erretiroetatik, Nafarroako Gobernuak 125 hutsune bete gabe utziko ditu. Hutsuneak betetzeko portzentajea irakaskuntza- eta osasun-arloetan berraztertu ahal izango da zerbitzu publikoak bete daitezela.

- **Aparteko orduak** % 25ean murriztea (400.000 euro aurreztuko dela kalkulatu da): Foruzaingoi eta Suhiltzaileen Zerbitzuari eragiten die, batez ere (errekrutatzeak, librantzan dauden langileei dei egiten zaie lan egin dezaten), eta lanaren antolaketa hobearen bidez, bai eta aparteko ordu horientatik denboran (ez ekonomikoki) egindako konpentsazioen bidez murriztuko da.

### **Aurrezteko neurrien bigarren sorta**

Gobernuak gaur erabaki duen lau neurri horiez gain, aurrezpeneko erantsitako hamar proposameneko sorta bat onartu da, eta legezko arauak edo sindikatuen akordioak aldatzea dakartzanez, langileen ordezkariekin negoziatuko dira orain.

Foru Gobernuak proposatzen dituen hamar neurri horiek honako hauek dira, laburbilduta:

1. Ordainsari-osagarria berraztertzea ezintasun iraunkorreko kasuetan (3 milioi euro)
2. Ordainsaria kentzea oporren hilabeteari dagokion aldagaiengatik (3 milioi euro)
3. Tarifak mugatzea "Erabilera Berezia" osasun-laguntzan (2,5 milioi)
4. Nahitaezko erretiroa 65 urte betetzean (2 milioi euro).
5. Diru-sarrerarik jasotzen ez duen bizikideagatik jasotzen den laguntza kentzea (500.000 euro)
6. Bidaia bakoitzeko dietak kentzea (300.000 euro)
7. Montepíos-ko funtzionarioen borondatezko erretiroa berraztertzea (300.000 euro).
8. Sindikatuko liberatuei buruzko neurriak (300.000 euro): sindikatuen egungo kreditua% 10ean murriztea; eta aldagaiak egutegiaren arabera bakarrik ordaintzea.
9. Goi-karguei buruzko neurriak (200.000 euro): funtzionarioak diren goi-kargu ohientzat osagarri pertsonala murriztea; bizi-aseguruak eta istripu-aseguruak etetea; funtzionarioentzako "erabilera berezia" osasun-laguntza zerbitzutik at geratzea; eta gizarte segurantzarekiko kotizazioa kentzea.
10. Plantilla publikoa 2012an izoztea.